

DIALEKTOLOGIA

AGERPENAK ETA ELIZA

Orain dela egun batzuk, nere amonak bere anaia bati gertatutako istorio bat kontatu zidan, eta harrituta eta aldi berean pixkat izututa gelditu nintzen. Nere amonak esandakoaren arabera, duela denbora gutxi arte oso normala zen Goizuetan hildakoak agertzea. Apezak hildakoen alde mezaren bat ematen zue-nean desagertzen omen ziren betirako agerpen hauek.

Ondoren Dolores Mitxelenak, nere amonak, gai honen inguruko hiru edo lau edesti kontatuko dizkigu 1930-1940 urteen artean gertatuak. Kontutan izan behar da 1912an jaio zela amona Dolorex.

DOLOREX MITXELENAREN KONTAKIZUNAK

Nere anaia Andreseri pasatu izandu zezik, Manduin in tzien zerritia ezurrara zerrik eramattoko ta, zerrik zaintzen arita ixteira sartu arte an eon bar ta berandu xamar tor bar, eta berandu eldu zela eurire bayuen ta, bere goasolakin, ta goasolan puntatan yaia itxera alletu zen denbon sei argi yarri zekion zintzilikan, eta sei ta sei ta sei ta, itxeko atera alletu zen denbon itzali zekion.

Berriz atzera urrengo eunen zerrita yon bar tzien, berrize alojittu zian kustera, eta pixkot goiztxio, izutu yuen bezperan ta. Eta berrize itxera eldu zela, illuna txoll nabartu biño leno itxera arrimatzen, itxera arrimatzen ai zela, pareta kontran gizon bat, eta, " hau ze yarri zit niri oañe", arrunt izutua. Beira beira yarri yuen, yarri menuen eta bere osaba hilta kajan

sartu zuten bezalaxe bere traje beltxakin. Eta, arrunt izutua itxera. Amari ordun esan omen tzeon: hau ta, hau ta, hau. Eta, "bueno, bueno. Meza ate zan". Mez ora ate zuten eta geio etzizion agertu.

Mantxintxako baserrikoke itxillu earrak kusi izandu ttiztek postura ortako gauzakin.

Bi nixka oe baten, beste bi besten, ankaz-anka oek, eta alkoba ttiki baten bazterren atta ta ama, eta argi borobil bat anuntz eta onuntz. Nixka batzun burura yon ta urrongon besten burura yon. Eta ama errepetu yuen beste oetika, eta "Antonio, ekusten al tzu argi ori?. Eta "ez, ze pasatzen da ba?". "Emen argi bat dabilla anuntz eta onontz nixka orin gañen barrana". Eta gizonare beira yarri yuen eta izutu arrunt, belexe yekitzeko tenorea, bostatan yekita Olliiñera yon bar tzun lanera gizonak. Biek yeki zian izutuk, eta bere zekote ta pardela eman ta lanera bialdu zien gizona, ta andrea berriz oera, Mikala, eta berrize oera sartuta beira yarri yuen alkoba artika nixkan kuartora ta berrize an ora. Eta bere eziñeonakin belaxe yeki yuen, menuen, eta ez, ez mentzezion geio aertu eun artan. Eta gizona torri zen denbon lanetik illunoarren berrize geroko beldurra arke ta, "san barko diu ba apezari zerbette itteko do, zer pentsatu zu? "Galtu zeon andreri, galtu omen tzeon ta, "bai, pentsatu dut nike meza bat atetzeta". Eta berrize oera yon dia urrengo sunen meza ematteko intentziotan eta berrize ora aertu, eta pixkot ekusi zuten biño pezperan aña ez.

Berriz laneko prestatzera, andrea yeki zenen gizona prepatzera, berrize bere zekote ta pardelakin, andrea aik prepatzen ai zela, "ekusten al tzu ori Antonio?" Mikalak galtu zin eta

"bai, kusten dut bai". Ganbarako eskallera azpiin koxkan. Eta gizona lanera abitu zen denbon an aurren abitu men tzen, eta an aurren itxetik aurreko sorora bittarte. Eta au esan mentzin gizonak, "onazkoa baza mintza zittea eta gaxtozkoa baza onda zittea". Eta, "onazkoa naiz ba, zure ama naiz meza baten billa", esan omen tzin, eta yon men tzen pozaz lanera, lanetik onontzen apezangana torri omen tzen eta seittun esan omen tzin Don Benantziori ya meza... "au ta au gertatzen tzin" ta ya meza bat lenbailen ateko zun. Ta "bai, biar goizen bertan ateko dut", eta akabo, geio ez omen tzuten ekusi.

Artantxuko Teresake ixtilluk kusi izandu ttik. Arire itxeen nonai argia atetzen tzezion. Aiek Pilloztanbordan ibiltzen ittuen lanen asko, ta gero, aik an lanen ibiltzen tzian denbon-ta, itxeke nausia ill yuen, Fermin, Pilloztanbordako Fermin.

Eta ondoren asi tzezion argia ari. Itxeen bertan atetzen tzizin nonai, eta gero Erreroko Antoniokin itxera yai illu-noarren ziola, Atatabordako ataritik onontz argia. "Ara, oañe emen dut nik au", eta, "zer duzu ba?" motillak galtu zin, eta, "zer den? Argi bat atetzen zit, eta oañe Atatabordako ataitik onontz ementxe eldu da". Seittun ikarin yarri menuen ta, "zaude ixillik emakumea, itxeeño launduko dizut beintzat nik eta". "Bai zuk itxera laundugatikan ori ni nitzan lekun emen da geinen". Eta "ez aputu, ez aputu" motillak. Eta, motillakin itxeeño yon ateeño, biño bera biño leno barrenera sartu mentzizion. Ori gauza arritzekok ttuk. Eta gero, ala berrize Pilloztanbordara lanera yon duk, artobiltzera, eta lanen arraselde guziin arita itxe... ara yon ta komonera yon omen uen eta or yarri mentzezirik nausi ori, Fermin ori, bera zen bezalaxe-bezalaxekoa, komonen txu-txutikan

bere traje beltzakin. Ikaragarritzko karraxik asi mentzittien eta bera kulpante iñ mentziten. Ixilik eotteko ta, olako gauzik ez ta nik ez dikit ze ta, badakizeta... Jesukriston jaleok an armatu mentzeketeon berari, berak naiko disgustok baizittin eta dena berak paatu zien, bai. Azkenen berak ixildu bar izandu omentzien. Ango itxekandrea ikaragarria asi mentzen eta ixildu iñ bar izandu mentzun, ez mentzin iñoire kasik iñ geio. Eta gero amanta zerikta deuse gabentenik, gazteen zen biño apezangana yon eta berak meza bat enkargatu ta berak atere men tzun, eta artan attu mentzizin.

Bekitxeko Batixtarire ate izandu zezik. Olliñdik lane-tik eldu zela an berandu xamar geldittu ta gaberdi benik bai ora itxera Bekitxera alletu zeneko, erritik Bekitxerare bidaje zeok eta. Eta itxea biño pixkot onontzixio or atere mentzekik bi emakume posturak. Zuriz yantzik iruna metro bai gutxinez bai menittuen aiek. Eta ez atzera eta ez aurrera utzitzen ez! Noizbette eskapatu menuen, ez bela! Noizbette itheen sartu menuen, biño itillu gorrik ekusita.

Zure attan osaba Manueleri berriz, erritik tziola buelto bat ekusten mentzun lenotika zerbette. Eta " zer da buelto ori?" Iñone trazik ematten ez, izar argi ederra mentzon, eta seita, seita , beti bueltoa, eta deusen trazik ematten ez, eta Benaisorora iaia alletu zen denbon, zakur aundi bat, animalike aundike etzen añeko zakur formako gauz bat ate mentzizin arire.